

CALL FOR ARTISTS

ITALIAR ARTEAREKIN TOPAKETA



ItaliaTxiki Kultur Elkartea eta Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) "Italiar artearekin topaketa" proiektua antolatzen ari dira Donostian, Euskal Herrian egiten den italiar kulturari eskainita.

"Italiar artearekin topaketa" Euskal Herrian bizi diren eta beraien lanetan italiar influentzia daukaten artisten erakusketa da.

Erakusketak 2020ko apirilaren 27an, Donostian, Carlos Santamaria Zentroko Txillardegi Aretoan (Elhuyar Plaza, 2) egingo den "Antologia italiana: poesia e altro" italiar literatura pasartearen errezitaldia osatzen du.

ZER DA "ITALIAR ARTEAREKIN TOPAKETA" /

"ITALIAR ARTEAREKIN TOPAKETA" ERAKUSKETA IZANGO DA GOGOETA, ITALIAR ARTEAREKIN DISZIPLINA ANITZEKO TOPAKETA BERE AGERPEN EZBERDINETAN (PINTURA, FOTOGRAFIA, 3D, IKUSIZKO ARTEAK, ETABAR. UNIBERTSITATE KIDEEI, EUSKAL HERRIKO ITALIAR KOMUNITATEARI ETA ITALIAR KULTURAN INTERESA DUTEN GUZTIEI ZUZENDUTA DAGO.

ERAKUSKETAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK:

1. Italiar kultura eta artearen influentzia lerro transbertsala izango da parte hartuko duten artisten lanetan.
2. 18 urte baino gehiagoko adina izatea.
3. Partaidetza doan da.
4. Erakusketa 2020ko apirilaren 20ean hasi eta maiatzaren 8an bukatuko da.
5. Teknikak eta gaiak libre izango dira eta lanen neurriak ere.
6. Artista bakoitzak gehienez hiru lan original aurkeztuko ditu.
7. **Izen-emateak 2020ko otsailaren 26tik martxoaren 20ra**, biak barne:
 - a - online izen-emateak inprimakia hemen beteaz:
<https://forms.gle/hZETnGAmQDPCaA9j9>
 - b - edo expo@italiatxiki.org helbidera mezua bidaliz ondorengo zehaztuz: egilearen izena, e-maila, harremanetarako telefono zenbakia, lan bakoitzaren argazkia eta izenburua, teknika/tipologia.

Epaimahai batek aukeratuko ditu erakusketan parte hartuko duten lanak.

8. Elkartea 2020ko martxoaren erdialdera hautatutako artistekin harremanetan jarriko da. Lanak 2020ko apirilaren 14 asteartean entregatu beharko dira 17:00etatik 19:00etara, Carlos Santamaria Zentroko erakusketa aretoan.
9. Muntaia 2020ko apirilaren 15ean egingo da, eta desmuntaia 2020ko maiatzaren 8an.
10. Lanak Donostian UPV/EHUko Carlos Santamaria Zentroko Txillardegi aretoan erakutsiko dira. UPV/EHU eta ItaliaTxikia Elkartea ez dira erakutsiko diren lanen arduradun egingo.

INAUGURAZIOA:

"Italiar artearekin topaketa" ekitaldiaren inaugurazioa 2020ko apirilaren 20ean 18:00etan izango da.



Informazio gehiagorako ondorengo helbidera idatzi: expo@italiatxiki.org